

## Xedapen Orokorrak

### OSASUN ETA KONTSUMO SAILA KULTURA SAILA

3562

204/2010 DEKRETUA, uztailaren 20ko, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko Dekretua aldatzekoa.

Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak euskara eta gaztelaniaren erabilera arautu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan, Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan esleitu zitzaien hizkuntza ofizialen mailarekin bat.

Gerora, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua onartu zuen abenduaren 22ko 6/2003 Legeak bere 4.f) artikuluan jaso zuen, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen oinarrizko eskubide bezala, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea, legeak berak eta ordenamendu juridikoaren gainerako legeek ezarritakoari jarraiki. Halaber, legearen II. Tituluko VII. Kapituluaren kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak arautu ziren, eta azken xedapenetako hirugarrenean aurreikusten da aipatutako kapituluaren erregelamendu bidezko garapenak hizkuntza politikaren eta kontsumoaren arloetan eskumena duten sailek batera egindako proposamenaren bidez onartuko direla.

6/2003 Legean xedatutakoa betez, hizkuntza eskubideei buruzko kapitulua uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoak, garatu zuen, eta honek jendeari begirako enpresa, erakunde eta establezimenduen hizkuntza betebeharrauk zehazten ditu, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko, eta darabilten hizkuntza ofiziala edozein izanda ere arreta egokia jasotzeko duten eskubidearen progresibotasun baldintzak ezartze aldera. Hala ere, 123/2008 Dekretuaren eragin-eremua 6/2003 Legearen II. Tituluko VII. Kapituluarena baino mugatua goa da, honetan jasotako kontsumo harreman batzuei eragiten baitie soilik.

123/2008 Dekretuak bere 18. artikuluan arautzen ditu arau-hausteak eta zehapenak, arauan ezarritakoa ez betetzeak zehapena dakarrela xedatuz, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 50.6 artikuluak ezarritakoari jarraiki, eta bere bi xedapen gehigarrietaen enpresa, erakunde eta establezimenduek dekretuan agindutakora egokitzeko dituzten epeak finkatuz.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO DEPARTAMENTO DE CULTURA

3562

DECRETO 204/2010, de 20 de julio, de modificación del Decreto sobre los derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias.

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, reguló el uso del euskera y el castellano en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en consonancia con su rango de lenguas oficiales establecido en el artículo 6 del Estatuto de Autonomía.

Posteriormente, la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias, recogió en su artículo 4.f), como derecho esencial de las personas consumidoras y usuarias, el de usar ambas lenguas oficiales en los términos que la propia Ley y el resto del ordenamiento jurídico contemplan. Asimismo, en el Capítulo VII del Título II de la Ley se regularon los derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias, estableciéndose en la Disposición Final Tercera que los desarrollos reglamentarios del citado Capítulo se aprobarían a propuesta conjunta de los departamentos competentes en materia de política lingüística y consumo.

Cumpliendo con lo dispuesto en la Ley 6/2003, el Capítulo relativo a los derechos lingüísticos fue objeto de desarrollo por el Decreto 123/2008, de 1 de julio, sobre los derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias, el cual determina las obligaciones lingüísticas de las empresas, entidades y establecimientos abiertos al público en sus relaciones con las personas consumidoras y usuarias, a fin de precisar los términos de progresividad en que éstas tienen derecho a recibir, en euskera y castellano, información sobre bienes y servicios y a ser atendidas cualquiera que sea la lengua oficial en que se expresen. Sin embargo, el Decreto 123/2008 tiene un ámbito de aplicación más limitado que el Capítulo VII del Título II de la Ley 6/2003, ya que solamente afecta a determinadas relaciones de consumo contempladas en la misma.

El Decreto 123/2008 trata las infracciones y sanciones en su artículo 18, disponiendo que los incumplimientos de lo establecido en la norma serán sancionados conforme a lo establecido en el artículo 50.6 de la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias, y regulando en sus dos disposiciones adicionales los plazos en los cuales las empresas, entidades y establecimientos abiertos al público afectados deben adaptarse a lo dispuesto en el Decreto.

Aitzitik, euskararen erabileraen egiazko normalizazioa gizarteko arlo guztieta lortzeko urratsak egiten jarraitu behar den arren, botere publikoen sustapen jarduera beharrezkoa izanik, gaur egun ez dago baldintza egokirik 123/2008 Dekretuaren eragin-eremuan zehapen araubiderik aplikatu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoan egun dagoen egoera soziolinguistika kontuan hartuta.

Horregatik, komeni da 123/2008 Dekretuaren idatzketa moldatzea, bertan jasotako hizkuntza betekizunen betetzea urtebetetze atzeratzeko xedearekin.

Horri jarraiki, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin adostasunez, Osasun eta Kontsumo sailburuak eta Kultura sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko uztailaren 20ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.**— Kontsumitzaileen eta erabilizaileen hizkuntza eskubideei buruzko uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 3.a), 4.a.1) eta 5., 1. paragrafoa, idatz-zatiak aldatzen dira, honela utziz:

«a) 5., 6., 7., 8., 9. eta 12. artikuluetan ezarritako betebeharrei dagokienez, Dekretua indarrean hasten denetik kontatzen hasita 3 urteko epean».

«1) Dekretu hau indarrean hasten denetik kontatzen hasita 3 urteko epean, 5. eta 12. artikuluetan aurreikusitako betebeharra betetzeko».

«5.— Finantza eta kreditu-erakundeak eta etxebizitzak saldu edo alokatzen dituzten enpresa edo eraikuntza-obren sustaztzaileak 10. eta 11. artikuluetan xedatutakoari, hurrenez hurren, egokitutu beharko zaizkio Dekretua indarrean hasten denetik kontatzen hasita 3 urteko epean.»

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko uztailaren 20an.

Lehendakaria,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,  
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.

Kulturako sailburua,  
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

Sin embargo, si bien es cierto que se debe continuar dando pasos para alcanzar una verdadera normalización del uso del euskera en todos los ámbitos de la sociedad, y es necesaria una actividad de fomento por los poderes públicos, hoy en día no se dan las condiciones adecuadas para poder aplicar un régimen sancionador en el ámbito de aplicación del Decreto 123/2008, teniendo en cuenta la realidad sociolingüística actual en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Por ello, procede modificar la redacción del Decreto 123/2008 con el objeto de que el cumplimiento de las obligaciones lingüísticas contenidas en el mismo se demore durante un año.

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta del Consejero de Sanidad y Consumo y de la Consejera de Cultura, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 20 de julio de 2010,

#### DISPONGO:

**Artículo único.**— Se modifican los apartados 3.a), 4.a.1) y 5, párrafo 1 de la disposición adicional primera del Decreto 123/2008, de 1 de julio, sobre los derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias, que quedan redactados de la siguiente forma:

«a) a las obligaciones establecidas en los artículos 5, 6, 7, 8, 9 y 12 en el plazo de 3 años desde la entrada en vigor de este Decreto.»

«1) en el plazo de 3 años desde la entrada en vigor de este Decreto para dar cumplimiento a las obligaciones previstas en los artículos 5 y 12.»

«5.— Las entidades financieras y de crédito y las empresas promotoras de obras de edificación o empresas que vendan o arrienden viviendas, se adaptarán a lo dispuesto en los artículos 10 y 11 respectivamente, en el plazo de 3 años desde su entrada en vigor.»

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de julio de 2010.

El Lehendakari,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Sanidad y Consumo,  
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.

La Consejera de Cultura,  
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.